

# **Etika eta Berme Kodea**

**Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia**

**Unibasqen 2019ko uztailaren 15eko Gobernu Kontseiluak onartua**

## **ARTIKULUAK**

### **LEHEN TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua. Xedea
2. artikulua. Aplikazio-eremua
3. artikulua. Kodearen publikotasuna eta konpromiso etikoaren sustapena
4. artikulua. Etika eta Berme Kodearen onarpena eta berrikuspena

### **BIGARREN TITULUA. PRINTZIPIO ETIKOAK**

5. artikulua. Zerbitzu publikoari lotutako printzipioak, Unibasqen erantzukizun-esparrua definitzen dutenak
  - Independentzia
  - Gardentasuna eta gobernu ona
  - Gizarte-erantzukizuna
6. artikulua. Erreferentziazko printzipioak, Unibasqen lan-estiloa definitzen dutenak
  - Inpartzialtasuna
  - Zorroztasuna eta objektibotasuna
  - Konfidentzialtasuna
7. artikulua. Bitarteko moduko printzipioak, Unibasqen konpromisoak definitzen dituztenak
  - Etengabeko hobekuntza eta berrikuntza
  - Efizientzia
  - Lankidetzeta eta talde-lana

### **HIRUGARREN TITULUA. UNIBASQEKO BATZORDE ETA KOMITEETAKO KIDEEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

8. artikulua.- Unibasqekin lankidetzan diharduten pertsonen eskubideak
9. artikulua.- Unibasqekin lankidetzan diharduten pertsonen betebeharrak
10. artikulua. Bateriaezintasun-arrazoiak
11. artikulua. Parte ez hartzea eta errekusazioa

### **LAUGARREN TITULUA. ETIKA- ETA BERME-BATZORDEA**

12. artikulua. Batzordearen eskumenak

13. artikulua. Etika eta Berme Batzordearen osaera

14. artikulua. Funtzionamendu-printzipioak

15. artikulua. Erregelamendua

## **I. ERANSKINA**

## HITZAURREA

Funtsean, Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea hobetzen laguntzeko sortu zen Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia, eta sistema horren kalitatea ebaluatzea, egiaztatzea eta ziurtatzea du helburu, Espainiako, Europako eta nazioarteko esparruan.

Kalitate Agentzia den aldetik, Unibasqek bere ebaluazioei prestigioa eman behar die, eta horretarako ezinbestekoa da bere jardun guztien objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatzea. Era berean, bere jardura goi-mailako hezkuntzaren eremuan garatzen duen erakunde publikoa den aldetik, Unibasqek euskal gizartearen prestakuntzaren eta ahalmen kritikoaren hobekuntzan erakunde aktiboa izan nahi du, eta horretarako NBEk onartutako garapen jasangarrirako helburuak (GJH) garatzeko eta aplikatzeko konpromisoa hartzen du. Helburu horrekin onartzen da Etika eta Berme Kode hau. Unibasqen eta Agentziarekin lan egiten duten edo hari zerbitzuak egiten dizkieten pertsonen jardun guztiak zuzendu behar dituzten balioen eta printzipioen sistema definitzen du Kodeak.

Kode hau diseinatu eta ezartzeko, aplikazio orokorreko oinarrizko printzipioak funtzio publikoaren zerbitzu guztietan txertatu dira, baita unibertsitate-funtzioaren eta ziurtatzeko, egiaztatze eta ebaluatze jardueraren zerbitzu espezifikoagoak ere. Era berean, Unibasqen ikuskera europarra etika-kode honen idazkuntzan ere azaltzen da, nazioarteko goi-mailako hezkuntza-agentzia eta hezkuntza-erakunde nagusietan bilduta dauden balioak, printzipioak eta estandarrak hartu baititu erreferentzia-puntu gisa, bereziki *Guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area (ESG)* deitutakoak.

Kode honek Etika eta Berme Batzordea izendatu du Kodea betetzen dela zaintzeaz arduratuko den organo gisa. Kodearen haustea edo jardura baten objektibotasuna edo gardentasuna arriskuan jarri dezakeen interes-gatazka bat ikusten duen edonork erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Batzordearen aurrean.

Unibasqeko zuzendaritzak, plantillak eta gobernu-organoez erakundeari izaera etikoa eta sozialki arduratsua emateko betebeharra dute. Horretarako, Etika eta Berme Kodea betetzen dela eta esleitu zaizkion funtzio guztiak betetzerakoan bere jardunek Kodeko printzipioekiko atxikimendua oinarri izan dezatela zaindu behar dute.

## LEHEN TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

### 1. artikulua. Xedea

1. Agentziak bere barnean konfiantza-, gardentasun- eta gizarte-erantzukizuneko irizpideei jarraikiz jardutea ahalbidetuko dioten printzipioak eta arauak finkatu beharraren ondorio da Unibasqen Etika eta Berme Kodea. Printzipio horiek, aldi berean, partekatzen diren eta bere lan-metodoetan txertatuko diren eta GJHak aplikatzea eta sustatzea ahalbidetuko duten balioen giroa sortzeko balio behar dute.

2. Era berean, Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzeko prozesuetan Agentziaren jardunen objektibotasuna eta gardentasuna bermatu nahi dira.

## **2. artikulua. Aplikazio-eremua**

Euskal unibertsitate-sistemaren eremuan kalitatea ebaluatzea, egiaztatzea eta ziurtatzea da Unibasqen xedea, Espainiako, Europako eta nazioarteko esparrua kontuan izanik. Etika eta Berme Kode hau nahitaezko bitarteko bat da xede hori lortzeko eta Agentziaren beraren jardunaren sinesgarritasunerako. Hau dela eta, Unibasqek Euskal Herriko goi-hezkuntzako erakundeekin dituen harremanetan eta loturaren bat duen beste erakunde edo interes-taldeekin dituen harremanetan aplikatuko da.

Kodea bete behar dutenak honako hauek dira: Agentziako zuzendaria, hala dagokionean zuzendariaren ondokoa eta gobernu-organoak, arloei atxikitako langileak, organo teknikoak eta ebaluazio-organoak, eta horiek osatzen dituzten edo Unibasqi zerbitzu profesionalak ematen dizkioten pertsonak.

## **3. artikulua. Kodearen publikotasuna eta konpromiso etikoaren sustapena**

Unibasqek konpromisoa hartu du bere langileei eta Agentziarekin lankidetzan diharduten pertsonen Kode honen balio, printzipio eta konpromisoak ezagutarazteko eta horien erabileran eta ulermenean prestatzeko. Horretarako, agentziaren webgunean publikotasuna emango zaio eta plantilla osoari eta ziurtapen, aholkularitza, egiaztapen edo ebaluazio zerbitzuren bat ematen duten pertsonen kode honen berri emango zaie. Pertsona horiek guztiek adierazpen bat sinatu behar dute, Etika eta Berme Kodearekiko erabateko atxikimendua berresteko (I. Eranskina).

## **4. artikulua. Etika eta Berme Kodearen onarpena eta berrikuspena.**

Gobernu Kontseiluari dagokio Agentziaren Etika eta Berme Kodea onartzea eta aldatzea, haren jardunen objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko.

## **BIGARREN TITULUA. PRINTZIPIO ETIKOAK.**

### **5. artikulua. Zerbitzu publikoari lotutako printzipioak, Unibasqen erantzukizun-esparrua definitzen dutenak**

Unibasqek bere ekimenekin Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea hobetzeko dagoen interes publikoa asetzea lortu nahi du. Hori guztia, giza eskubideetan, askatasunean, berdintasunean, garapen jasangarrirako helburuetan eta nortasunaren garapen askean eta bereziki hezkuntzarako eskubidean oinarritutako gizarte demokratiko baten esparruan.

#### **1. Independentzia**

Unibasqek askatasunez eta autonomiaz beteko ditu bere betebeharrak, bere eginkizuna errazago betetzeko eta bere jardunen profesionaltasuna eta sinesgarritasuna areagotzeko. Unibasqen

edota berarentzat lan egiten duen inork ez du utziko kanpoko presioek, eraginek edo esku-hartzeek bere irizpideen, iritzien eta jardun-printzipioen zorroztasunean eraginik izan dezaten.

## **2. Gardentasuna eta gobernu ona**

Unibasqek modu fidagarrian eta osorik, aurrez eta argiro, eskainiko du bere ebaluazio eta jardueretan erabiltzen dituen ebaluazio-irizpideei eta ebaluazio-prozesuei, prozedurei, inprimakiei, formularioei eta tresnei buruzko beharrezko informazio guztia, eta ez du ezein informazio ezkutatu, zerbitzuen erabiltzaileek informazio hori eskuratzeko eskubidea badute.

Era berean, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruz aplikatu behar zaizkion lege-xedapen guztiak beteko ditu, eta bere webgunean gardentasun-atari bat edukiko du.

## **3. Gizarte-erantzukizuna**

Unibasqek une oro kontuan izango du ematen dituen zerbitzuek gizartean duten inpaktua, eta ingurumena eta garapen jasangarrirako helburuak errespetatuko ditu. Horretarako, euskal unibertsitate-sistemaren hobekuntzan murgilduta dauden interes-talde guztiekin komunikatzeko mekanismoak ezarriko ditu, eta informazioak eta iritzia partekatuko dituzte, zeinak egiten dituen jardueren eta ematen dituen zerbitzuen etengabeko hobekuntzako prozesuetan kontuan izango dituen.

Era berean, Unibasqen jardueretan euskal unibertsitateen autonomia eta aniztasuna errespetatuko dira. Haien arteko eta haiekiko lankidetzaren eta komunikazioa bilatuko dute.

# **6. artikulua. Erreferentziazko printzipioak, Unibasqen lan-estiloa definitzen dutenak**

## **1. Inpartzialtasuna**

Agentziak eta harentzat zerbitzuak egiten dituzten pertsonak ahalegin guztiak egingo dituzte beren judizioetan inpartzialak izateko; hortaz, ez dute inolako diskriminaziorik egingo. Agentziako organoetako kideek ez dute ordezkatzen duten alderdiaren izenean lan egin behar, beren izenean eta beren irizpide propioei jarraiki baizik. Era berean, ez dute hartu behar kontuan Unibasqek ematen dituen zerbitzuei lotutako prozesuetan parte hartzen duten pertsonen aldeko edo kontrako aldeko aurreko judiziorik, eta ezein jardueratan parte hartzei uko egin behar diote interesen arteko gatazkaren bat egongo balitz.

## **2. Zorroztasuna eta objektibotasuna**

Unibasqeko langileak eta laguntzaileak zehaztasun eta zorroztasun teknikoan baino ez dira oinarrituko beren jarduerak egiteko, eta ez dute hartu behar kontuan aldeko aurreko balio-judiziorik. Aitzitik, merituko objektiboak eta eskatutako funtziorako egokitasuna baino ez dira kontuan hartuko. Unibasqekin lankidetzan diharduten pertsonen Kode honetan islatuta dauden arauak eta printzipioak hartzen dituzte beren gain beren ekintza, balioespen eta iritzietan.

## **3. Konfidentzialtasuna**

Unibasqek bere esku dauden datu pertsonalak behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko ditu, indarrean dagoen legerian aurreikusitakoari jarraiki. Horretarako, datu pertsonalen konfidentziasuna ziurtatzeko mekanismo eraginkorrak ezarriko ditu. Agentziak ezin izango du eman, inola ere, ebaluatutako pertsonen emandako datu pertsonalei buruzko informaziorik, interesdunek espresuki baimendu edo epai-agindu bat dagoenean izan ezik.

## **7. artikulua. Bitarteko moduko printzipioak, Unibasqen konpromisoak definitzen dituztenak**

Unibasqek jakin badaki kalitateak, zerbitzuak eta bikaintasunaren eta berrikuntzaren kulturak garrantzi handia dutela jardura guztietan, ematen dituen zerbitzuen etengabeko hobekuntzaren bitartez eta bere jardunak nazioartean onartuta dauden arau komunetara egokituz.

### **1. Etengabeko hobekuntza eta berrikuntza**

Agentzia behartuta dago kanpoko ebaluazioa eta egiaztapena egitera, bere emaitzen etengabeko hobekuntza eta bere erabiltzaileen, gizartearen eta unibertsitate-komunitatearen konfiantza lortzeko. Behartuta dago, halaber, egiten dituen jardueretan eta diseinatu eta aplikatzen dituen prozesuetan etengabeko berrikuntza-ahalegin bat egitera, jardura eta prozesu horien eraginkortasuna eta arintasuna hobetzeko.

### **2. Efizientzia**

Unibasqeko zuzendaritza, langileak eta Unibasqekin lankidetzan diharduten organo eta pertsona guztiak behartuta daude esleitzen zaizkien baliabideak erabiltzean efizientzia bilatzera. Unibasqek bere baliabide ekonomikoak gardentasunez kudeatuko ditu, arrazionaltasunez, independentziaz eta efizientziaz administratuz, hau da, Euskal Unibertsitate Sistemarentzat ahalik eta modurik onenean erabiliz. Exijentzia hori baliabideen jatorriari nahiz erabilera arduratsuari aplikatuko zaie.

### **3. Lankidetzaren eta talde-lana**

Talde-lana, lan-giro ona, lankidetzaren eta ebaluatzaileen eta Unibasqeko langileen artean informazioa eta ideiak elkartrukatzeko jarduerak beharrezkoak izango dira Unibasqek bere helburuak lortzeko. Era berean, euskal unibertsitate-sistemako agenteek Unibasqen estrategien definizioan modu aktiboan parte har dezaten bultzatuko du Unibasqek, eta sortzen diren egoera eta eskari berriak kontuan hartu behar ditu bere estrategiak zehazterakoan.

## **HIRUGARREN TITULUA. UNIBASQEKO BATZORDE ETA KOMITEETAKO KIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### **8. artikulua.- Unibasqekin lankidetzan diharduten pertsonen eskubideak**

Unibasqen programak garatzeko eratzen diren batzorde eta komiteetako kide orok, baita erakundearekin lankidetzan jardun dezakeen edozein adituk ere, honako eskubide hauek ditu:

1. Hartu behar dituen erabakietan bere iritzi-independentzia erabat errespetatzea, eta balizko injerentzien aurrean babestea.
2. Bere eginkizunak betetzeko Unibasqen laguntza eta babes teknikoa izatea, baita horretarako prestakuntza egokia jasotzea ere.
3. Kide anitzeko bilkuretan esku hartu behar duen espedienteen informazio aurreratua izatea.
4. Kide anitzeko erabakiekiko desadostasuna adieraztea, boto partikularra emanez.
5. Unibasqekin egiten duen lankidetzajardueraren errekonozimendua eta ziurtapena.
6. Unibasqen Gobernu Kontseiluaren erabakietan ezarritakoaren arabera ordainsariren bat eskuratzea.

## **9. artikulua.- Unibasqekin lankidetzan diharduten pertsonen betebeharrak**

Unibasqen programak garatzeko eratzen diren batzorde eta komiteetako kide orok, baita erakundearekin lankidetzan jardun dezakeen edozein adituk ere, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Ebaluazio- eta egiaztapen-prozesuetan objektibotasunez, inpartzialtasunez, independentziaz eta zorrotzasunez jardutea.
2. Neutraltasun osoz, autonomiaz eta norberaren izenean jardutea, partaide den erakunde akademikoekiko eta elkarte profesionalekiko duen edozein konpromiso alde batera utziz.
3. Agintzen zaion zeregina behar bezala gauzatzeko beharrezkoa den dedikazioarekin jardutea.
4. Aztertzeko dituen espedienteen balorazioan ezarrita dauden prozeduretara mugatzea, kide anitzeko erabaki-hartzeetan eta akordioetan parte hartzea, eta hartutako erabakiak behar den moduan arrazoitzea.
5. Bidezko denean parte ez hartzea, Kode honen 11. artikuluan adierazitakoaren arabera, planteatu daitekeen interes-gatazkako edozein egoerari buruz ohartaraziz Unibasqi.
6. Ebaluazio-prozesuaren ondorioz ezagutu ditzakeen eskatzaileen datu pertsonalen erabateko erreserbari eustea, izaera pertsonaleko datuen babesaren alorrean indarrean dagoen araudia kontuan izanik.
7. Batzorde eta komiteen eztabaidak eta bertako kideen irizpide edo posizioak, oro har eta pertsona eskatzaileei dagokienez bereziki, isilpean gordetzea, baita oraindik formalki jakinarazi ez diren ebazpenen nondik norakoa ere.
8. Ebaluatzaileek beren eginkizuna betetzeko eskura dituzten aplikazio informatikoekiko eta datu-baseekiko sarrerarik ez ematea hirugarren pertsonari.



9. Etika eta Berme Batzordearen erabakiak aplikatzea eta haren errekerimenduei arreta eskaintzea.

## 10. artikulua. Bateriaezintasun-arrazoiak

1. Agentziak eta harentzat zerbitzuak egiten dituzten pertsonak ahalegin guztiak egingo dituzte beren judizioetan inpartzialak izateko; hortaz, ez dute inolako diskriminaziorik egingo. Agentziako organoetako kideek ez dute ordezkatzeko duten alderdiaren izenean lan egin behar, beren izenean eta beren irizpide propioei jarraiki baizik. Era berean, ez dute hartu behar kontuan Unibasqek ematen dituen zerbitzuei lotutako prozesuetan parte hartzen duten pertsonen aldeko edo kontrako alde aurreko judiziorik, eta ezein jardueratan parte hartzeari uko egin behar diote euren inpartzialtasuna zalantzan jartzea ahalbidetzen duen interes-gatazkaren bat balego.

2. Pertsona fisikoek egindako ebaluazio edo egiaztapen eskaeren kasuan, berau egiteko bateriaezintasun arrazoiak honakoak dira:

a.- Eskatzailearen sail edo unibertsitate zentro berekoa lagun izatea.

b.- Laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko kidesuna izatea eskatzailearekin.

c.- Eskatzailearekin bukatutako bi ikerkuntza edo berrikuntza proiektuetan edo gehiagoetan parte hartu izana, edo eskaera edo ebaluazioa egin behar den momentuan indarrean dagoen proiektu bateko parte-hartzaile izatea.

d.- Eskatzailearen doktorego tesiaren zuzendaria izana.

e.- Auzi bat izatea eskatzailearekin edo iraganean eduki izana.

f.- Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean.

g.- Eskatzailearekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

h.- Egiaztapenean edo ebaluazioan parte hartzen duen pertsonaren objetibotasuna edo inpartzialtasuna asalda dezakeen interes-gatazka bat sor dezakeen beste edozein egoera.

3. Beste erakunde batzuek egin behar dituzten ziurtapen, egiaztapen edo ebaluazio txostenen eskaeren kasuan, bateriaezintasun arrazoiak honakoak dira:

a.- Erakundea atxikita dagoen Unibertsitate berekoa izatea edo azkeneko bi urtean zerbitzu profesionalak egin izana zentro eskatzailean.

b.- Erakunde eskatzailea (zentroa, unibertsitatea, etab ... eskaera egiten duen erakundearen arabera) ordezkatzeko dutenekin laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko kidesuna izatea.

- c.- Indarrean dagoen auzi bat izatea edo eduki izana erakunde eskatzailea atxikitzen den unibertsitatearekin edo erakunde eskatzailea ordezkatzeko duten pertsonekin (zentroa, unibertsitatea, etab.... eskaera egiten duen erakundearen arabera).
- d.- Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean.
- e.- Erakunde eskatzailea (zentroa, unibertsitatea, eta abar, eskaerak egiten duen erakundearen arabera) ordezkatzeko duten pertsonekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
- f.- Egiaztapenean edo ebaluazioan parte hartzen duen pertsonaren objetibotasuna edo inpartzialtasuna asalda dezakeen interes-gatazka bat sor dezakeen beste edozein egoera.

## **11. artikulua. Parte ez hartzea eta errekusazioa.**

1. Aurreko artikuluan aipatutako bateraezintasun-arrazoi bat ematen den guztietan espediente horren ziurtapenean, egiaztapenean edo ebaluazioan parte hartzen dabilen pertsonak Etika eta Berme Batzordeari jakinarazi beharko dio lehenbailehen. 10.2 artikuluko a, b, c, d eta e hizkietan edo 10.3 artikuluko a, b eta c hizkietan agertzen diren arrazoiren bat jasoko balitz Batzordeak, berauetan aurreikusten den ustezko egintza ematen dela alderatu ondoren, pertsona hori berehala prozesutik baztertzeko agindua emango du.

10.2 artikuluko f, g eta h hizkietan edo 10.3 artikuluko d, e eta f hizkietan aurreikusitako arrazoiren bat ematen bada Etika eta Berme Batzordeak egoera aztertuko du eta pertsona prozesutik baztertu edo ez erabakiko du bere erabakiaren objetibotasuna edo inpartzialtasuna arriskuan jartzeko besteko arrazoia den arabera.

Baztertutako pertsonari egokitutako rola eskaeraren txostenaren idazketa edo egiaztapen instituzional baten bisita-panelaren kide izatea bada beste pertsona bat izendatu beharko da hau ordezkatzeko. Beste pertsona batzuk egindako espediente batzuen inguruan erabaki bat hartu behar duen Batzordearen kide bada ordea, eta espediente hauen artean parte ez hartzeko arrazoi bat badago, Batzordearen gainontzeko kideek eztabaidatu eta espediente jakin horren inguruan erabakia hartu behar dutenean bilera utzi egin beharko du. Azken kasu honetan, ez da ordezkorik izendatuko, Batzordearen gainontzeko kideek hartuko baitituzte erabakiak.

2. 12. artikuluan aipatutako bateraezintasun-arrazoi bat ematen den kasuetan eta ez bazaio eskatu Etika eta Berme Batzordeari parte ez hartzea eta honek ez badu ere ofizioz egin, interesdunek prozeduraren edozein momentutan pertsonaren ezespina eskatu dezakete. Ezespina idatziz aurkeztu eta Etika eta Berme Batzordera zuzenduko da eta ezespina hau oinarritzen den arrazoiak azalduko ditu. Batzordeak ezetsitako pertsonari idatzia helaraziko dio honek adierazitako bateraezintasun-arrazoia ematen den edo ez azaldu dezan. Onartuz gero, pertsona automatikoki espedientetik baztertuko da artikuluko honen 1. artikuluan ezarritako eraginekin. Ezespenerako arrazoia dagoela ukatuz gero Etika eta Berme Batzordeak alde biak entzun eta emandako frogak aztertu ondoren prozeduren 6. artikuluan ezarritakoari jarraikiz erabakia hartuko du. Ezespina onetsiz gero, erabakiaren ondorioak artikuluko honetako 1. artikuluan jasotakoak izango dira.

## **LAUGARREN TITULUA. ETIKA- ETA BERME-BATZORDEA.**

### **12. artikulua. Batzordearen eskumenak**

Etika eta Berme Batzordea Kodea betetzen dela zaintzeaz arduratzen den organoa da. Zehazki, honako hauek dagozkie:

- 1) Kodea behar bezala ezartzen, interpretatzen eta aplikatzen dela ikuskatzea, eta hori garatzen duten erabakiak onartzea.
- 2) Parte ez hartzeko betebeharraren edo Kode honen 11. artikulua araberako Batzordearen aurrean aurkez litezkeen ezespen-eskaeren inguruko jakinarazpenak ebaluatzea eta jakinarazpen horiei buruzko erabakiak hartzea.
- 3) Kodearen eta, behar izanez gero, Erregelamenduaren ezarpenaren aldizkako berrikuspenak egitea, eta emaitza horiek Gobernu Kontseilura helaraztea.
- 4) Ziurtapen-erabakien, egiaztapen-erabakien edo Unibasquetik eratorritako ebaluazio-txostenen aurka aurkeztutako errekursoei buruzko erabakia hartzea, baldin eta errekurso horiek aztertutako pertsonaren edo erakundearen alde ezarritako bermeren bat urratzen duen akats formal batean edo prozesuan esku hartu duen pertsonaren baten inpartzialtasunik ezean oinarritzen badira. Ebazpenak errekursoa baiesten badu, erabakiaren deuseztasun-deklarazioa egingo da eta errekurritutako ziurtapena, egiaztapena edo ebaluazio-txostena berriro egin beharko da. Errekurtso hori jartzeko prozedura eta kausak Kode honetako 15. artikuluan aipatzen den Etika eta Berme Batzordearen Erregelamenduaren 6. artikuluan garatzen dira.
- 5) Kodea urratzeagatik aurkeztutako erreklamazioen berri ematea, baldin eta erreklamazio horien oinarria aurreko zenbakian zehaztu ez den arrazoiren bat bada. Erreklamazio horiek jartzeko prozedura Kode honetako 15. artikuluan aipatzen den Etika eta Berme Batzordearen Erregelamenduaren 7. artikuluan garatzen da.

### **13. artikulua. Etika eta Berme Batzordearen osaera.**

Euskal Unibertsitate Sistematik eta Agentziaren gobernu- eta/edo ebaluazio-organo guztietatik kanpo dauden hiru pertsonaz osatuta egongo da batzorde hau. Horietako bat Gobernu Kontseiluak hautatuko du, beste bat Aholkularitza Batzordeak, eta hirugarrena Unibasqeko Ikasleen Aholku Batzordeak.

Batzordeak Unibasqeko plantillako pertsona baten laguntza izango du, hitzarekin baina botorik gabe, eta idazkaritza teknikoko zereginak beteko ditu.

Batzordea osatzen duten pertsonak hiru urterako izendatuko dira, eta behin baino ezin izango dute kargua berriro aldi bererako. Pertsona horiek ezin izango dira berriro izendatu kargua uzten dutenetik hiru urte igaro arte.

### **14. artikulua. Funtzionamendu-printzipioak**

Batzordekideek Kode honetan zehaztutako printzipio etikoak izango dituzte erreferentzia orokor gisa. Kodea bete ez izanagatik erreklamazioei ekitean, honako printzipio hauek hartuko dituzte bereziki

kontuan: objektibotasuna, inpartzialtasuna, independentzia, konfidentzialtasuna, kontraesana, eraginpeko pertsonetikiko errespetua eta zentzuzko bizkortasuna.

### **15. artikulua. Erregelamendua**

Organo honen funtzionamendua Batzordeak berak onartuko duen barne-erregelamendu batean zehaztuko da, eta Agentziako Gobernu Batzordeak berretsi behar du argitaratu eta indarrean sartu baino lehen. Batzordeak onartutako erregelamenduaren edozein erreforma ere Kontseiluak berretsi beharko du, eta ondoren Unibasqen webgunean argitaratu beharko da.

## I. eranskina

### **ETIKA- ETA BERME-KODEAREN ONARPENA ETA KONFIDENTZIALTASUNAREN, INPARTZIALTASUNAREN ETA INTERES GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA**

Sinatzaileak adierazten du Unibasqen Etika eta Berme Kodea irakurri eta ulertu duela, eta, horrenbestez, honako hau

#### **ADIERAZTEN DU:**

- Onartu egiten du, fede onez interpretatuko du eta errespetatuko dela ziurtatuko du.
- Ez du parte hartuko interes akademikoen edo pertsonalen arteko gatazkak sor diezazkioketen proposamenak ebaluatzen, ezta ebaluatzeko eskatzen dioten proposamenak edo curriculumak ebaluatzen ere, zuzeneko edo zeharkako harremana badu haiekin. Zehazki:

Pertsona fisikoek egindako ebaluazio edo egiaztapen eskaeren kasuan, berau egiteko bateraezintasun arrazoiak honakoak dira:

a.- Eskatzailearen sail edo unibertsitate zentro berekoa lagun izatea.

b.- Laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko kidesuna izatea eskatzailearekin.

c.- Eskatzailearekin bukatutako bi ikerkuntza edo berrikuntza proiektuetan edo gehiagoetan parte hartu izana, edo eskaera edo ebaluazioa egin behar den momentuan indarrean dagoen proiektu bateko parte-hartzaile izatea.

d.- Eskatzailearen doktorego tesiaren zuzendaria izana.

e.- Auzi bat izatea eskatzailearekin edo iraganean eduki izana.

f.- Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean.

g.- Eskatzailearekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

h.- Egiaztapenean edo ebaluazioan parte hartzen duen pertsonaren objetibotasuna edo inpartzialtasuna asalda dezakeen interes-gatazka bat sor dezakeen beste edozein egoera.

Erakundeek egin behar dituzten ziurtapen, egiaztapen edo ebaluazio txostenen eskaeren kasuan, bateraezintasun arrazoiak honakoak dira:

a.- Erakundea atxikita dagoen Unibertsitate berekoa izatea edo azkeneko bi urtean zerbitzu profesionalak egin izana zentro eskatzailean.

b.- Erakunde eskatzailea (zentroa, unibertsitatea, etab ... eskaera egiten duen erakundearen arabera) ordezkatzeko dutenekin laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko kidetasuna izatea.

c.- Indarrean dagoen auzi bat izatea edo eduki izana erakunde eskatzailea atxikitzen den unibertsitatearekin edo erakunde eskatzailea ordezkatzeko duten pertsonekin (zentroa, unibertsitatea, etab.... eskaera egiten duen erakundearen arabera).

d.- Interes pertsonala izatea aztertuko den gaietan edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean.

e.- Erakunde eskatzailea (zentroa, unibertsitatea, eta abar, eskaerak egiten duen erakundearen arabera) ordezkatzeko duten pertsonekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

f.- Egiapenaren edo ebaluazioaren parte hartzen duen pertsonaren objektibotasuna edo inpartzialtasuna asalda dezakeen interes-gatazka bat sor dezakeen beste edozein egoera.

- Konpromisoa hartu du ebaluatu behar dituen proposamenekin edo curriculumekin zuzeneko edo zeharkako interes-gatazkaren bat dagoela badaki Unibasqi berehala haren berri emateko, baita bera dagoen bilera batean eztabaidatzen diren proposamenekin edo curriculumekin zuzeneko edo zeharkako interes-gatazkaren bat dagoela badaki ere.
- —Ez du emango inongo informaziorik ebaluazio-prozesuari eta haren emaitzei buruz.
- —Ebaluazioa Unibasqen bulegoetatik kanpo egiten bada, badaki bera izango dela bidaltzen dioten dokumentu idatzi edo elektronikoren ororen konfidentzialtasunari eusteko arduraduna eta, ebaluazioa amaitzen denean, dokumentu konfidentzial guztiak suntsituko edo ezabatuko ditu, Unibasqek kontrakoa esaten ez badio.

Lekua eta eguna

Sinadura

Izen-abizenak